

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

63. zenbakia

Data 2006-03-31

7583 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GFA - FISKALITATEA ETA FINANTZAK

Martxoaren 29ko 333/2006 FA, Europar Batasuneko estatueta egoitza duten pertsona fisikoak lortu dituzten errentaren urteko aitorpenerako 299 eremu berria onartzen duena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

FISKALITATERAKO ETA FINAN TZE TARAKO DEPARTAMENTUA

Martxoaren 29ko 333./2006 FORU AGINDUA, Europar Batasuneko beste estatu batzuetan eta informazioa truka tzeko hitzar mena ezarrita dagoen beste herrialde edo lurraldeetan egoiliartutako per tsona fisikoek urtean lortutako errenta jakin batzuk aitor tzeko erabiliko den 299 eredu berria onar tzen duena. Abenduaren 21eko 117/2006 Foru Dekretuak, per tsona eta entitate jakin batzuek zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharrari buruzko xedapen batzuk gara tzen dituenak, aldaketak izan ditu duela gutxi matxo aren 28ko 22/2006 Foru Dekretua dela medio. Izan ere, dekretu horrek beste kapitulu bat gehitu dio esandako dekretuari, XXV. kapitulua hain zuzen, Gipuzkoako zerga ordenamendura Europako 2002/48/CE Zuzentaraua ekar tze arren. Horrek haxe izan du helburu: Ondorio fiskaletarako, zerga egoi tza beste estatu batean duten per tsona fisikoei Batasuneko estatu batean ordain tzen zaizkien aurrezkien interesak zerga egoi tza dagoen estatuko legeriaren arabera zergapetu ahal izatea. Horretarako, Batasuneko estatutuetako zerga administrazioek informazioa truka tzeko sistema automatikoa ezar tzea xedatu da arteztarauan. Informazio obligazio horiek bete tzea errazteko, foru agindu honen bidez onarturik gera tzen da 299 eredu, Europar Batasuneko beste estatu batzuetan eta informazioa truka tzeko hitzar mena ezarrita dagoen beste herrialde edo lurraldeetan egoiliartutako per tsona fisikoek urtean lortutako errenta jakin batzuk aitor tzeko erabili beharrekoa.

Horren indarrez, honako hau,

XEDATU DUT

1. artikulua. Urteko aitorpena egiteko erabiliko den 299 eredu eta honen diseinu fisiko eta logikoak onar tzea.

Onarturik gera tzen da 299 eredu, "Europar Batasuneko beste estatu batzuetan eta informazioa truka tzeko hitzar mena ezarrita dagoen herrialde edo lurraldeetan egoiliartutako per tsona fisikoek urtean lortutako errenta jakin batzuk aitor tzeko erabili beharrekoa" (foru agindu honetan I. eranskin gisa ageri dena), eta onarturik gera tzen dira, baita ere, telematikoki aurkeztuko diren fitxa tegien eta ordenagailuz zuzenean irakur tzeko euskarrien diseinu fisiko eta logikoak, II. eranskinean jasota daudenak.

2. artikulua. Informazioaren xedea eta edukia.

Bat.299 ereduan aitortu behar diren errentak abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretuaren 60. artikuluan zehaztutakoak dira.

Bi.Honako jaso tzaileak sartuko dira 299 aitorpen-ereduan:

a)Europar Batasuneko beste estatu batean egoi tza duten per tsona fisikoak.

b)Europar Batasuneko beste estatu batean finkatuta dauden entitate hauek:

1.Nortasun juridikorik gabeko entitateak.

2. Batasuneko beste estatu batean enpresen tributazio arau orokorren arabera zergapetuta ez dauden entitateak.

3.85/611/EEE Zuzentarauan araututako inber tsio kolektiboko erakundeak ez diren entitateak.

Hala ere, entitate horiek ez dira jaso tzaile tzat hartuko aitorpena aurkeztu behar duenari froga tzen badiote Kon tseiluaren ekainaren 3ko 2003/48/CEE Zuzentarauaren 4.3. artikuluan ezarritako aukeraz baliatu direla; horretarako, entitatea kokatuta dagoen Batasuneko estatuko zerga agintariek emandako ziurtagiria aurkeztu behar diote.

Hiru. Aurreko 2 apartatuan xedatutakoa hala izanik ere, 299 eredia aurkeztu behar dutenek ezin izango dituzte aitorpenean sartu jaso tzaile gisa abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretuak 61.3 artikuluan aipatutako zirkunstan tziak froga ditza keten per tsona fisikoak, betiere per tsona fisiko horiek apartatu horretako c) eta d) letretan ezarritakoaren arabera eman dako informazioa erago tzi gabe.

Era berean, Kon tseiluaren ekainaren 3ko 2003/48/CE Zuzentarauak 4. artikuluko 2 apartatuan ezarritakoaren arabera, Europar Batasuneko beste estatu batean egoi tza duten entitateetan honako baldin tze tako bat bete tzen denean, 299 eredian ez da haiei buruzko informaziorik eman beharko:

a) per tsona juridikoa izatea, 4. artikuluko horretako 5 apartatuan aipatutakoak izan ezik;

b) Batasuneko beste estatu batean enpresen tributazio arau orokorren arabera zergapetutako entitatea izatea.

c) 85/611/CEE Zuzentarauan araututako inber tsio kolektiboko erakundeetako bat izatea.

Lau. 299 aitorpen-ereduan sar tze ari begira, errentak jaso tzen dituztenak, Europar Batasuneko beste estatu bateko egoiliar direnak, nor diren eta egoi tza non duten zehazteko, abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretuak 63. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Horrek ez du erago tziko egoi tza egiazta tzeko moduei buruzko xedapenetan foru agindu honen xede diren errentei Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren salbuespenak aplika tzeko ezarritakoa. 3. artikulua. 299 eredia aurkeztera behartuak.

Abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretuak 61. artikuluan zerrenda tzen dituen per tso nak eta entitateak daude behartuta Europar Batasuneko beste estatu batzuetan eta informazioa truka tzeko hitzar mena ezarrita dagoen herrialde edo lurraldeetan egoiliartutako per tsona fisikoek urtean lortutako errenta jakin batzuk aitor tzeko 299 eredia aurkeztera.

4. artikulua. 299 eredia aurkezteko epea eta tokia.

Bat. Eredua urte bakoi tzeko mar txoan zehar aurkeztuko da, aurreko urte naturalari buruzko informazioa bertan jasota.

Bi. 299 eredia zerga bulegoetan eta Fiskalitaterako eta Finan tza rako Departamentuko Idazkari tza Teknikoko Zerga Informatikako Atalean aurkeztu ahal izango da, bai eta Zergabilketa Erregelamenduak bilketan lagun tzeko baimen tzen dituen entitateetako batean ere (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatibetan).

5. artikulua. 299 eredia aurkezteko era.

299 eredia ordenagailuz zuzenean irakur tzeko euskarrian aurkeztuko da.

6. artikulua. 299 eredia ordenagailuz zuzenean irakur tzeko aurkezten diren euskarrien identifikazioa eta aurkezteko era.

Bat. Aitor tzaileak agiri hauek aurkeztu behar ditu:

1.299 ereduaren laburpen-orriaren bi aleak, bai Administrazioarena eta bai interesatuarena, behar bezala sinatuta. Orri horietan aitor tzailearen identifikazio-datuak eta laburpen-orrian eskatutako gainerako guztiak adieraziko dira. Ale bakoi tza rekin batera identifikazio fiskaleko zenbakiaren txar telaren fotokopia aurkeztuko da.

299 ereduia bulegoan aurkeztu eta zigilua ipini ondoren, aitor tzaileak laburpen-orriaren interesatuaren alea gordeko du bere tzat, aurkezpenaren frogagiri gisa erabil tzeko.

2.Euskarriak etiketa bat eraman beharko du itsa tsita kanpoaldean, eta bertan ondoko datu hauek adieraziko dira ordena honetan nahitaez:

a)Gipuzkoako Foru Aldundia.

b)Ekitaldia.

c)Aurkezten den ereduia: 299.

d)Eransten den laburpen-orriaren frogagiri-zenbakia.

e)Aitor tzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).

f)Aitor tzailearen deiturak eta izena, edo sozietatearen izena.

g)Aitor tzailearen helbidea, udalerrria eta posta kodea.

h)Harremanetarako per tso naren deiturak eta izena.

i)Harremanetarako per tso naren telefono zenbakia eta luzapena.

j)Erregistro kopurua, guztira.

k)Euskarriaren den tsi tatea 3 1/2"-ko disketetan: 720 KB edo 1,44 MB.

Datu horiek adierazteko, nahikoa izango da aurreko zerrendaren arabera bakoi tzari dagokion letra aurretik jar tzea.

Artxi boak ordenagailuz zuzenean irakurriko den euskarri bat baino gehiago duenean, sekuen tzialki enumeratutako etiketa bana eramango dute era honetara: N/1, n/2, etab, eta "n" hori artxi boak dituen euskarri kopurua izango da. Aurkezle bakoi tzeko artxibo bakarria egongo da. Bigarren bolumenaren eta ondorengo etiketan aski izango da aurreko a), b), c), d), e)eta f) letretan adierazitako datuak jar tzea.

Bi.Ordenagailuz irakur tzeko aurkezten diren euskarri guztiak behin-behinekoak izango dira, beren prozesaketa egin eta egiaztatuak izan arte. Foru agindu honetan ezarritako diseinu eta bestelako berezitasunekin bat ez datozenean, edota bertan jasotako informaziora iristerik ez dagoenean, aitor tzaileari hamar laneguneko epea emango zaio aurkeztu duen euskarri informatikoaren aka tsak zuzendu ditzan. Egun horiek igaro eta Zerga Administrazioa ezin bada eskatutako datu guztietara edo horien zati batera iri tsi fun tsezko arazoak oraindik hor daudelako, aitorpena baliogabeko tzat joko da ondorio guztietarako, eta zergapekoari horren berri emango zaio zergatiak azalduta.

Hiru.Segurtasun arrazoiak direla-eta, ordenagailuz zuzenean irakur tzeko euskarriak espresuki eska tzen denean baino ez dira itzu liko. Horrelakoetan, edukia ezabatu ondoren itzu liko dira, dela horiek, dela antzeko batzuk.

Xedapen Gehigarria.Abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretuak 61.2 artikuluan aipa tzen duen aukeraz baliatu izanari buruzko ziurtagiria.

Bat.Abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretuak 61.2. artikuluan ezar tzen duenez, foru agindu honen bidez onartutako aitorpenaren xede diren errentak jaso tzen dituzten entitateak errentak eslei tzeko erregimenean daudenean, aukera dute, oro har eta mugarik gabe, informazioa errentak Batasuneko beste estatu bateko egoiliar diren kideei ordain tzen dizkietenean emateko, baldin eta errentaren zenbatekoa Batasuneko beste estatu batean egoi tza duen per tsona fisiko bati esleitu baldin badakioke.

Bi.Fiskalitaterako eta Finan tze tarako Departamentuari jakinaraziko zaio aukera horretaz balia tzea aukera dela.

Hiru.Entitateak aurkeztu behar duen 299 ereduaren lehen aitorpena aurkezteko epea hasi aurretik jakinarazi beharko da aukera hori egin dela.

Lau.Entitateak eska tzen badu, Fiskalitaterako eta Finan tze tarako

Departamentuak aukera hori egin izanari buruzko ziurtagiria emango du, III. eranskinean ageri den ereduari jarraituta.

Xedapen Iragankorra.

Europar Batasuneko beste estatu batzuetan egoiliartutako per tsona fisikoek lortutako errenta jakin batzuei buruz egiten den aitorpenean 2005. urteko informazioa jaso tzen denean, aitorpen hori 2006ko apirilean zehar aurkeztuko da, Foru Agindu honen bidez onar tzen den 299 eredia erabilita, eta bertan adierazitako eran eta tokian.

Amaierako Xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2006ko martxoaren 29.-Juan José Mujika Aginagalde,
Departamentuko foru diputatua.

(3036) (3436)

I. ERANSKINA

@@@I0603436-01

II. ERANSKINA

@@@I0603436-02

299 EREDUA TELEMATIKOKI AURKEZTEKO ERABIL TZEN DIREN
ARTXI BOEK ETA ORDENAGAILUZ ZUZENEAN IRAKUR TZEKO
EUSKARRIEK BETE BEHARREKO DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK
A)EUSKARRIEN EZAUGARRIAK

Europar Batasuneko beste estatu batzuetan eta informazioa truka tzeko hitzar mena ezarrita dagoen herrialde edo lurraldeetan egoiliartutako per tsona fisikoek urtean lortutako errenta jakin batzuk aitor tzeko erabiliko den 299 eredia ordenagailuz zuzenean irakur tzeko euskarriek ezaugarri hauek izan behar dituzte:

Hona hemen arau honetan aipa tzen den informazioa aurkezteko ordenagailuz zuzenean irakur tzeko euskarriek izan beharreko ezaugarriak:

-Mota: CD-R (Compact Disc Recordable), 12 cm-koa.

-Edukiera: 700 MB gehienez.

-Formatua: ISO/IEC DIS 9660:1999, Joliet luzapenarekin zein hura gabe.

-Saio anitz: Ez.

299 EREDUA

B)DISEINU LOGIKOAK ERREGISTROEN DESKRIBAPENA

Aitor tzaile bakoi tze rako bi erregistro-mota ezberdin jarriko dira, lehen kokalekuagatik bereizten direnak, honako irizpideei jarraituz:

1. mota: Aitor tzailearen erregistroa.

Identifikazio-datuak eta aitorpenaren laburpena. Agindu honetako eranskinean eta atal hauetan aurreraxeago adieraziko diren erregistroetatik 1. motako erregistroaren diseinua.

2. mota: Jaso tzailearen erregistroa.

Agindu honetako eranskinean eta atal hauetan aurreraxeago adieraziko diren erregistroetatik 2. motako erregistroaren diseinua.

Aurkezpenaren hurrenkera erregistro motaren arabera izango da; 1. motako erregistro bakarra egongo da eta, 2. motarako, berriz, aitorpenean sartutako jaso tzaileak adina erregistro aurkeztuko dira.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrokatu behar dira eta eskuinean zuriuneak utzi; letra larriz ida tzi behar da eta ezin da erabili ez karaktere berezirik ez bokalik.

Hizkun tza ren karaktere berezietarako ISO-8859-1 kodifikazioa erabiliko da.

Honela "Ñ" letrak ASCII 209 balorea izango du (Hex. D1) eta "Ç" letrak (ze hau tsi larriak) ASCII 199 balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinean lerrokatu eta ezkerrean zeroz beteta aurkeztu behar dira, zeinurik gabe eta paketatuta gabe.

Eremu guztiek izan behar dute edukia, eremuaren deskripzioan besterik adierazi ezean. Edukirik ez badute, eremu numerikoetan zeroak jarriko dira, eta alfabetikoak eta alfanumerikoak hutsik utziko dira.

299 EREDUA

B. 1. MOTAKO ERREGISTROA: AITORTZAILEAREN ERREGISTRO (Posizioak, Izaera eta Eremuaren deskripzioa)

-Posizioak: 1.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Erregistro mota.

"1", aldaezina.

-Posizioak: 2-4.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Aitorpen eredu.

"299", aldaezina.

-Posizioak: 5-8.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Ekitaldia.

Aitorpenaren zerga ekitaldiaren lau zifrak.

-Posizioak: 9-17.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuaren deskripzioa: Aitor tzailearen IFZ.

Aitor tzailearen IFZ adierazi behar da. Eremu hau eskuinean lerrokatu behar da, kontrol-karakterea azkenean jarri, eta ezkerreko posizioetan zeroak ida tzi, IFZren osaketa eta erabilera arauetuta dituzten arauetan ezarritako erregelekin bat etorri.

-Posizioak: 18-57.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuaren deskripzioa: Aitor tzailearen izen-deiturak edo sozietatearen izena.

Per tsona fisikoa bada, era honetan adieraziko da: Lehenengo deitura, gero tarte bat, gero bigarren deitura, gero tarte bat, eta azkenean izen osoa, hurrenkera honexetan nahitaez.

Per tsona juridikoak edo errentak esleitu dituzten entitateak direnean, sozietatearen izen osoa ida tzi behar da, anagramarik gabe. Eremu honetan inolaz ere ezin da jarri merkataritza izenik.

-Posizioak: 58.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuaren deskripzioa: Euskarri mota.

Gako hauetariko bat jarri behar da:

"C": Informazioa CD-R (Compact Disc Recordable) euskarrian aurkeztu bada.

-Posizioak: 59-107.

Izaera: Alfnumerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Harremanetarako per tsona.

Harremanetarako per tso naren datuak. Eremu honetan bi atal daude:

59-67. Telefonoa: 9 posizioako eremu numerikoa.

68-107. Deiturak eta izena: Era honetan adieraziko dira: Lehenengo deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta azkenean izen osoa, hurrenkera honexetan nahitaez.

-Posizioak: 108-120.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Zeroak.

-Posizioak: 121-122.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuaren deskripzioa: Aitorpen osagarria edo ordezkoa.

Aparteko kasuetan, bigarren aitorpena edo ondoren beste aitorpenik aurkeztuz gero, ondoko eremuetako bat bete behar da nahitaez:

121.Aitorpen osagarria: Aitorpen berriaren xedea lehenago aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean agertu behar izan arren oso-osorik jarri gabe geratu ziren jaso tzaileak sar tzea bada, "C" ida tzi behar da.

122.Ordezko aitorpena: Aitorpenaren xedea ekitaldi bereko aurreko beste aitorpen bat oso-osorik deusezta tzea eta ordezkia tzea bada, "S" jarri behar da. Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bakar bat baino ezin du baliogabetu.

-Posizioak: 123-135.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Zeroak.

-Posizioak: 136-144.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Jaso tzaileak, guztira.

Euskarrian ageri diren jaso tzaile kopuru osoa adierazi behar da. Jaso tzaile bat erregistro batean baino gehiagotan ager tzen bada, ager tzen den adina aldiz konputatuko da (2. motako erregistroen kopurua).

-Posizioak: 145-162.

Izaera: Alfnumerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Errenten zenbatekoa.

Eremu honetan atal hauek daude:

145.Zeinua: Alfabetikoa: Errenten batura (1. motako erregistroko 146-162 posizioak) 0 (zero) baino gutxiago denean bete behar da. Horrelakoetan "N" ida tzi behar da, eta gainerako guztietan zuriunea utzi.

146-162.Zenbatekoa: 17 posizioako eremu numerikoa. 2.motako erregistroetako "Errebaren zenbatekoa" eremuan (188 - 199 posizioak) jarritako zenbatekoen batura ida tzi behar da, koma hamartarrik gabe. Jaos tzaileen erregistroetako "Erren taren zenbatekoaren zeinua" eremuan (2. motako erregistroko 188. posizioa) "N" jarri bada, kopuru horiek minus zeinuarekin konputatuko dira batura egitean.

Eremu honetan bi atal daude:

146-160.Errenten zenbatekoaren zati osoa.

161-162.Errenten zenbatekoaren zati hamartarra.

-Posizioak: 163-180.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Besterengana tzeen balioa.

18 posizioako eremu numerikoa.

Jaso tzailearen erregistroetako "Besterengana tze balioa" (205-221 bitarteko posizioak ageri diren kopuru guztien batura jarri behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe.

Eremu honetan bi atal daude:

163-178.Besterengana tzeen balioaren zati osoa.

179-180.Besterengana tzeen balioaren zati hamartarra.

-Posizioak: 181-487.

Izaera: Zuriuneak.

-Posizioak: 488-500.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Zuriuneak.

* Edukirik gabeko eremu numerikoak zeroak jarraitu beteko dira.

* Edukirik gabeko eremu alfanumeriko/alfabetikoak zeroak jarraitu beteko dira eremuaren deskribapenean.

* Eremu numeriko guztiak eskuinean lerokatu behar dira eta ezkerrean zeroz bete behar dira.

* Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerokatu behar dira eta eskuinaldean zuriuneak utziko dira; letra larriak idazteko behar da, karaktere berezirik gabe eta bokaletan zenturik jarri gabe, eremuaren deskribapenean bestelakorik esaten denean izan ezik.

299 EREDUA

B. 2. MOTAKO ERREGITROA: JASOTZAILEAREN ERREGITROA

(Posizioak, Izaera eta Eremuaren deskripzioa)

-Posizioak: 1.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Erregistro mota.

"2", aldaezina.

-Posizioak: 2-4.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Aitorpen eredu.

"299", aldaezina.

-Posizioak: 5-8.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Ekitaldia.

1. motako erregistroko posizio hauetan dagoena idazteko behar da.

-Posizioak: 9-17.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Aitor tzailearen IFZ.

1. motako erregistroko posizio hauetan dagoena idazteko behar da.

-Posizioak: 18-26.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Jasotzaileari espainiar emandako IFZ.

Jasotzaileak Espainiar emandako IFZ badi, ondoko adierazi behar da:

Per tsona fisikoa bada, jasotzailearen IFZ jarri behar da, IFZren eraketa eta hura erabilizteko era araupeku dituzten arauetan ezarritako erregelekin bat etorritik.

Jasotzailearen Batasuneko beste estatu bateko entitatea bada, hain zuzen ere abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretuko 62. artikuluko bigarren apartatuan aipatuetakoa bat (Europar Batasuneko beste estatu batean egoiliaritutako nortasun juridikorik gabeko entitateak, Batasuneko beste estatu baten enpresen

tributazioari buruzko arau orokorren arabera zergapetuta ez daudenak, edo 85/611/CEE Zuzentarauak araupetutako inber tsioko kolektiboko erakunde ez direnak, Espainiako legeriaren arabera errentak esleitzen zuten erregimenean egon zein ez egon), identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi behar da.

Eremu hau eskuinean lerrotatu behar da, kontrol-karakterea azken posizioan jarri behar da eta ezkerreko posizioak zeroz bete behar dira.

Jaso tzailea adingabekoa bada eta IFZrik ez badu, eremu hau ez da bete behar; beraren legezko ordezkariak IFZ badu, legezko ordezkariaren IFZ eremuan jarri behar da.

Eremu honetan Espainian emandako IFZak bakarrik jar daitezke. Halakorik eduki ezean, zuriuneak utziko dira.

-Posizioak: 27-35.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuaren deskripzioa: Legezko ordezkariaren IFZ.

Jaso tzailea adingabekoa bada eta IFZrik ez badu, eta kasu honetan bakarrik, eremu honetan haren legezko ordezkariak (aita, ama edo tutorea) Espainian duen identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da.

Eremu hau eskuinean lerrotatu behar da, kontrol-karakterea azken posizioan jarri behar da eta ezkerreko posizioak zeroz bete behar dira.

Beste edozein kasutan, eremu honetako edukia zuriuneekin beteko da.

-Posizioak: 36-75.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuaren deskripzioa: Jasotzailearen deiturak eta izena edo sozietate izena.

a) Per tsona fisikoa bada, lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat eta izen osoa jarriko da, nahitaez hurrenkera horretan. Jasotzailea adingabekoa bada, eremu honetan beraren deiturak eta izena jarriko dira.

Per tsona fisikoak deitura bat bakarrik badu, lehenengo deitura ida tzi behar da, gero tarte bat utzi eta azkenik izena ida tzi, hurrenkera honetan.

b) Jasotzailea Batasuneko beste estatu bateko entitatea bada, hain zuzen ere abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretuko 62. artikuluko bigarren apartatua aipatuetakoa bat (Europar Batasuneko beste estatu batean egoiliaritutako nortasun juridikorik gabeko entitateak, Batasuneko beste estatu baten enpresen tributazioari buruzko arau orokorren arabera zergapetuta ez daudenak, edo 85/611/CEE Zuzentarauak araupetutako inber tsioko kolektiboko erakunde ez direnak, Espainiako legeriaren arabera errentak esleitzen zuten erregimenean egon zein ez egon), sozietate izena adierazi behar da, anagramarik gabe.

-Posizioak: 76.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuaren deskripzioa: Jasotzailearen gakoa.

F. Jasotzailea per tsona fisikoa bada.

E. Jasotzailea Batasuneko beste estatu bateko entitatea bada, hain zuzen ere abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretuko 62. artikuluko bigarren apartatua aipatuetakoa bat (Europar Batasuneko beste estatu batean egoiliaritutako nortasun juridikorik gabeko entitateak, Batasuneko beste estatu baten enpresen tributazioari buruzko arau orokorren arabera zergapetuta ez daudenak, edo 85/611/CEE Zuzentarauak araupetutako inber tsioko kolektiboko erakunde ez direnak, Espainiako legeriaren arabera errentak esleitzen zuten erregimenean egon zein ez egon).

-Posizioak: 77-148.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuaren deskripzioa: Jaso tzailearen helbidea.

Jaso tzailearen helbidea ida tzi behar da.

Jaso tzailea per tsona fisikoa bada (Jaso tzailearen gakoa: F), ondokoa hartu behar da kontuan:

2004ko urtarrilaren 1a baino lehen formalizatutako kontratuetan, helbidea aitor tzaileak duen informaziotik aterako da, Espainiako lurraldean indarrean dagoen arautegia eta, batez ere, kapitalen zuri tzea saihesteko neurri batzuei buruzko abenduaren 28ko 19/1993 Legean xedatutakoa kontuan hartuta.

2004ko urtarrilaren 1etik aurrera formalizatutako kontratuetan edo kontraturik gabe egindako transakzioetan, helbidea pasaportetik edo nortasun agiri ofizialetik aterako da. Agiri horietan helbidea ageri ez bada, jaso tzaileak aurkeztutako frogagiriak arakatuta lortuko da.

Jaso tzailea Europar Batasuneko beste estatu bateko entitatea bada (Jaso tzailearen gakoa: E), aitor tzaileak dituen datuen arabera helbidea jarri behar da.

Eremu honetan lau atal daude:

77-102.Bide publikoa: Izena eta zenbakia.

Izena osorik sar tzen ez bada, ez da ida tzi behar ez artikulurik, ez preposiziorik, ez juntagailurik, eta tituluak laburtuta adierazi behar dira (Ad.: Kd = Kondea).

Beste kasuetan ohiko laburdurak erabiliko dira.

Halaber, etxe aren zenbakia edo puntu kilometroa adierazi behar da.

103-137.Herria.

35 posizioko eremua.

Jaso tzailearen helbidearen udalerria adierazi behar da, eta, behar denean, probin tzia, erregioa edo departamentua ere bai.

138-146.Posta kodea.

Jaso tzailearen helbideari dagokion posta kodea jarri behar da.

147-148.Herrialdearen kodea.

Jaso tzailea bizi den herrialde edo lurraldearen kodea jarri behar da; kodeen zerrenda azaroaren 27ko 1.204/2001 Foru Aginduaren VIII. eranskinean dago.

-Posizioak: 149.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuaren deskripzioa: Kontu motaren gakoa.

Jaso tzailea per tsona fisikoa denean bakarrik (Jaso tzailearen gakoa: F).

"Bezero kontuaren kodea/balore kontuaren kodea" eremuan ezarritakoaren arabera, eremu honetan gako hauetako bat jarri behar da:

A.Banku kontuaren identifikazioa bezero kontuaren kodearen bidez (BKK).

B.Balore kontuaren identifikazioa balore kontuaren kodearen bidez (BaKK).

O.Errenta sortu duen kredituaren beste identifikazio bat. (Ad.: 2004ko Zerga Neurriei buruzko apirilaren 6ko 2/2004 Foru Arauko bigarren xedapen gehigarrian araupetutako baloreen maileguak adierazteko erabiliko da).

-Posizioak: 150-153.

Izaera: Alfnumerikoa.

Eremuaren deskripzioa: IBAN kodearen aurrezenbakia.

Jado tzailea per tsona fisikoa denean bakarrik (Jaso tzailearen gakoa: F).

"Kontu motaren gakoa" eremuan A jarri bada (banku kontua bezero kontuaren kodearen bidez -BKK- identifikatuko dela adierazten du), azpikode hau jarri behar da: IBANen (Banku Kontuen Nazioarteko Kodea) Espainiari dagozkion lehen lau karaktereak.

Eremu honetan bi atal daude:

150-151. Herrialdearen ISO kodea: Eremu honetan ES jarri behar da.

152-153. Kontrol digituak: Aitor tzaileak banku igorlean erakunde koderik ez badu eta, ondorioz, IBAN koderik ez badu, zuriuneak utziko dira.

-Posizioak: 154-173.

Izaera: Alfnumerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Bezero kontuaren kodea/balore kontuaren kodea.

Jaso tzailea per tsona fisikoa denean bakarrik (Jaso tzailearen gakoa: F).

Aitor tzailea finan tza entitatea bada eta Espainian ez-egoiliarren banku konturik badu edo errentak sor tzen dituzten baloreen administrazioa eta gordaila tzea agindu bazaizkio, datu hauek adierazi behar dira. Kode honen egitura honelaxe banaka tzen da:

154-157. Entitatearen kodea.

158-161. Sukur tsa laren kodea.

162-163. Kontrol digituak.

164-173. Kontuaren zenbakia.

Aitor tzaileak banku jaulki tzaileak emandako entitate koderik ez badu, berak zehaztutako identifikazioa jarri behar da.

Kontu motaren gakoa 0 bada, errenta sortu duen kreditua identifika tzeko aitor tzaileak erabil tzen duen barruko identifikazioa adierazi behar da.

-Posizioak: 174.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Balore jaulki tzailearen/inber tsio kolektiboko fondo edo sozietatearen gakoa.

Jaso tzailea per tsona fisikoa denean bakarrik (Jaso tzailea gakoa: F).

"Balore jaulki tzailearen/inber tsio kolektiboko fondo edo sozietatearen identifikazioa" eremuaren edukia identifika tzen du. Hona balioak:

1.IFZ.

2.ISIN.

3.ISIN ez duten atze rriko baloreak; jaulki tzaileak ez du IFZrik.

4.Zor Publikoko Idaztoharren Zentralak idaztohartutako zorrari emandako balioaren kodea.

-Posizioak: 175-186.

Izaera: Alfnumerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Balore jaulki tzailearen/inber tsio kolektiboko fondoaren edo sozietatearen identifikazioa.

Jaso tzailea per tsona fisikoa denean bakarrik (Jaso tzailearen gakoa: F).

Jaulki tzailea edo inber tsio kolektiboko fondoa edo sozietatea identifika tzeko da.

Oro har, ISIN kodea jarri behar da; kode hori Balore Merkatuaren Nazio Batzor deak abenduaren 16an balore emandako 1/1998 Arau Teknikoaren arabera taxaturik egon behar da.

Baloreek halako koderik ez badute:

* "Balore jaulki tzailearen/Inber tsio kolektiboko fondo edo sozietatearen gakoa" eremuan (174. posizioan) 1 jarri bada, jaulki tzailea edo inber tsio kolektiboko fondoa edo sozietatea identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez identifikatu behar da.

* "Balore jaulki tzailearen/Inber tsio kolektiboko fondo edo sozietatearen gakoa" eremuan (174. posizioan) 3 jarri bada, "ZXX" gakoa jarri behar da; "XX" jaulki tzailearen edo inber tsio kolektiboko fondoaren edo sozietatearen herrialdearen kodea da (herrialdeen gakoak azaroaren 27ko 1.204/2001 Foru Aginduaren VIII.

eranskinean jaso dira). Halaber, tituluak ISIN koderik ez duen nazioaz gaindiko entitate batek jaulki baditu (Mundu Bankua, etab.), ZNN gakoa jarri behar da (NN aurrean aipatutako III. eranskineko gako alfabetikoetako bat izan behar da).

* "Balore jaulki tzailearen/Inber tsio kolektiboko fondo edo sozietatearen gakoa" eremuan (174. posizioan) 4 jarri bada, Zor Publikoko Idaztoharren Zentralak idaztohartutako zorrari emandako balioaren kodea ida tzi behar da.

-Posizioak: 187.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuaren deskripzioa: Errenta motaren gakoa.

Ondokoetako bat jarri behar da:

A. Hirugarren batzuei norberaren kapitalak laga tze agatik jaso tzen diren interesak eta lagapen hori ordain tzeko hitzar tzen den beste edozein ordainketa, eta 8/1998 Foru Arauko 35. artikuluan aipatutako gainerako errentak ere bai, B letrakoak izan ezik.

B. Besteren kapitalak erakarri eta erabil tze aren ordezkari diren mota guztietako aktiboak eskualdatu, itzuli, amortizatu, trukatu edo bihurtuta sortutako etekinak.

* Ondoko entitateen akzioak edo partaide tzak eskualdatuta edo itzu lita lortutako errentak:

1. Inber tsio kolektiboko erakundeak, Kon tseiluaren 85/611/CEE Zuzentarauan araututakoak (1985eko abenduaren 20koa).

2. 117/1999 Foru Dekretuko 61.2. artikulukoan ezarritako aukerari heldu dioten entitateak.

3. Europako Erkidegoaren Ituna aplikatzen den lurraldetik kanpoko inber tsio kolektiboko erakundeak.

C. Ondoko entitateek banatutako emai tzak:

1. Inber tsio kolektiboko erakundeak, Kon tseiluaren 85/611/CEE Zuzentarauan araututakoak (1985eko abenduaren 20koa).

2. 117/1999 Foru Dekretuko 61.2. artikulukoan ezarritako aukerari heldu dioten entitateak.

3. Europako Erkidegoaren Ituna aplikatzen den lurraldetik kanpoko inber tsio kolektiboko erakundeak.

D. Aitor tzailea errentak esleitzen dituen entitate bat bada eta aitortutako jaso tzailea Europar Batasuneko beste estatu batean egoiliaritutako per tsona fisikoa izanez gero, entitateak jasotako errenta esleigarri duena, baldin eta entitateak 117/1999 Foru Dekretuko 61.2. artikulukoan ezarritako aukerari heldu ez badio.

-Posizioak: 188-199.

Izaera: Alfnumerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Errentaren zenbatekoa.

Dibisa eragiketetan, etekina edo ondare irabazia, txi kitu gabe, eurotan, edo haren kontrabalioa. Halaber, eragiketari loturiko hainbat partaide daudenean, haietako bakoitzi bere partaide tza-ehunekoaren arabera egotz dakiokeen zenbateko osoa jarriko da.

117/1999 Foru Dekretuko 60.1.a) artikuluko errenten kasuan, baldin eta finan tza erakundeak ezin badu zehaztu eskualdaketa, amortizazio edo itzul keta eragiketaren etekina, "Besterengana tzeen balioa" eremuan eskualdaketa, amortizazio edo itzul keta balioa adierazi behar da, eta eremu hau hutsik utzi.

117/1999 Foru Dekretuko 60.1.c) artikuluko errenten kasuan, baldin eta ez badago zehazterik akzioak edo partaide tzak eskualdatu, amortizatu edo itzu lita lortutako errentaren zenbatekoa, edo eskualdaketa edo itzul ketan guztira lortutako zenbatekoaren berri ematea hautatzen bada, "Besterengana tzeen

balioa" eremuan jarritako eskualdaketa, amortizazio edo itzul keta balioa adierazi behar da, eta eremu hau hutsik utzi.

189-188.Zeinua: Alfabetikoa. Aurreko zenbatekoa negatiboa bada, "N" jarriko da; bestela zuriuneak utziko dira.

189-199.Zenbatekoa: 11 posizioko eremu numerikoa. Lehen azaldu den zenbatekoa jarriko da, hamartarik gabe.

Eremu honetan bi atal daude:

189-197.Errenten zenbatekoaren zati osoa.

198-199.Errenten zenbatekoaren zati hamartarra.

-Posizioak: 200-204.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Banatutako emai tzen ehunekoa.

"Errenta motaren gakoa" eremuan C gakoa duten errentari badago, eremu honetan 117/1999 Foru Dekretuko 60.1.a)artikuluari adierazitako errenten ondorioz banatutako emai tzen ehunekoa adierazi behar da. Nolanahi ere, "Errenten zenbatekoa" eremuan guztira banatutako zenbatekoa jarri behar da. Aitor tzaileak ez badauka informaziorik 117/1999 Foru Dekretuko 60.1.a) artikuluari adierazitako errenten ondorioz banatutako emai tzei buruz, edo guztira banatutako zenbatekoaren berri ematea hauta tzen badu, aipatu foru dekretuko 62.2. artikuluari ezarritakoarekin bat etorriz, eremu hau hutsik utzi behar da.

Eremu honetan bi atal daude:

200-202. Ehunekoaren zati osoa (ez badu, zeroak jarri).

203-204. Ehunekoaren zati hamartarra (ez badu, zeroak jarri).

-Posizioak: 205-221.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Besterengana tzeen balioa.

Eremu hau "Errentaren zenbatekoa" eremuan (2. motako erregistroko 188 - 199 bitarteko posizioetan) ezer jarri ez denean soilik bete behar da.

117/1999 Foru Dekretuko 60.1.a) artikuluko errenten kasuan, baldin eta finan tza entitateak ezin badu zehaztu eskualdaketa, amortizazio edo itzul keta eragiketaren etekina, eremu honetan eskualdaketa, amortizazio edo itzul keta balioa adierazi behar da.

117/1999 Foru Dekretuko 60.1.c) artikuluko errenten kasuan, baldin eta ez badago zehazterik akzioak edo partaide tzak eskualdatu, amortizatu edo itzu lita lortutako errentaren zenbatekoa, edo eskualdaketa edo itzul ketan guztira lortutako zenbatekoaren berri ematea hauta tzen bada, eremu honetan eskualdaketa edo itzul keta balioa adierazi behar da.

Dibisa eragiketetan, besterengana tze eragiketaren zenbateko osoa jarri behar da, eurotan, edo beraren kontrabalioa. Eragiketari loturiko hainbat partaide daudenean, haietako bakoitzi bere partaide tza ren arabera egotz dakiokeen zenbateko osoa jarriko da.

Eremu honetan bi atal daude:

205-219.Besterengana tze-balioaren zati osoa.

220-221.Besterengana tze-balioaren zati hamartarra.

-Posizioak: 222-432.

Izaera: Zuriuneak.

-Posizioak: 433-452.

Izaera: Alfnumerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Egoi tza dagoen herrialdeko identifikazio fiskaleko zenbakia.

Jaso tzaileak egoi tza duen herrialdean edo lurraldean duen identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da.

Jaso tzailea per tsona fisikoa bada (Jaso tzailearen gakoa -76. posizioa: F), ondokoa hartu behar da kontuan:

2004ko urtarrilaren 1etik aurrera formalizatutako kontratuetan edo kontraturik gabe egindako transakzioetan, egoi tza dagoen herrialde edo lurraldeko identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi behar da, edukiz gero. Datu hau pasaportetik edo nortasun agiri ofizialetik aterako da.

Jaso tzailea egoiliartutako herrialdeko identifikazio fiskaleko zenbakia ez bada ageri pasaportean, ez nortasun agiri ofizialean, ez hark aurkeztutako gainerako frogagiritan, pasaportean edo nortasun agiri ofizialean ageri diren jaio tza-eguna eta jaioterria eremu hauetan jarri behar dira, hurrenez hurren:

"Jaioteguna" (2. motako erregistroko 453-460 posizioetan) eta "Jaioterria" (2. motako erregistroko 461-497 posizioetan). Eremu hau bete gabe utzi behar da. Jasotzailea Europar Batasuneko beste estatu bateko entitatea (Jaso tzailearen gakoa -76. posizioa: E), eremu honetan bertan duen identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da.

-Posizioak: 453-460.

Izaera: Numerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Jaioteguna.

Jaso tzailearen gakoa F denean soilik adierazi behar da (2. motako erregistroko 76. posizioa).

2004ko urtarrilaren 1etik aurrera formalizatutako kontratuetan edo kontraturik gabe egindako transakzioetan, jasotzailea egoiliartutako herrialdeko identifikazio fiskaleko zenbakia ez bada ageri pasaportean, ez nortasun agiri ofizialean, ez aurkeztutako gainerako frogagiritan, pasaportean edo nortasun agiri ofizialean ageri den jaioteguna ida tzi behar da.

Urtearen lau digituak jarriko dira, hilaren biak (01etik 12ra) eta egunaren biak (01etik 31ra), UUUUHHHEE formatuarekin.

-Posizioak: 461-497.

Izaera: Alfnumerikoa.

Eremuaren deskripzioa: Jaioterria.

Jaso tzailearen gakoa F denean soilik adierazi behar da (2. motako erregistroko 76. posizioa).

2004ko urtarrilaren 1etik aurrera formalizatutako kontratuetan edo kontraturik gabe egindako transakzioetan, jasotzailea egoiliartutako herrialdeko identifikazio fiskaleko zenbakia ez bada ageri pasaportean, ez nortasun agiri ofizialean, ez aurkeztutako gainerako frogagiritan, pasaportean edo nortasun agiri ofizialean ageri den jaioterria ida tzi behar da.

Eremu honetan bi atal daude:

461-495. Herria: 35 posizio. Jasotzailea jaio zen udalerria adierazi behar da, eta, behar denean, probin tzia, erregioa edo departamentua ere bai. Izenak hogeita hamabost karaktere baino gehiago baditu, lehenbiziko hogeita hamabostak ida tzi behar dira, artikulurik eta preposiziorik gabe.

496-497. Herrialdearen kodea: Jasotzailea jaio zen herrialdearen edo lurraldearen kodea adierazi behar da (herrialdeen gakoak azaroren 27ko 1.204/2001 Foru Aginduaren VIII. eranskinean jasotza dira).

-Posizioak: 498-499.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuaren deskripzioa: Jaso tzaileak zein herrialde edo lurraldetan duen egoi tza.

Jaso tzailea per tsona fisikoa bada (Jaso tzailearen gakoa -76. posizioa-: F), egoiliartuta dagoen herrialde edo lurraldearen kodea zehaztu behar da.

Jaso tzailea bizi den herrialde edo lurraldearen kodea jarri behar da; kodeen zerrenda azaroren 27ko 1.204/2001 Foru Aginduaren VIII. eranskinean dago.

Aitorpen informatibo honen ondorioetarako, Europar Batasuneko beste estatu batean egoiliartutako per tsona fisiko jaso tzailearen egoi tza honela zehaztuko da:

1.2004ko urtarrilaren 1a baino lehen formalizatutako kontratuetan, egoi tza aitor tzaileak dituen datuetatik aterako da, Espainiako lurraldean indarrean dagoen arautegia eta, batez ere, kapitalen zuri tzea saihesteko neurri batzuei buruzko abenduaren 28ko 19/1993 Legean xedatutakoa kontuan hartuta.

2.2004ko urtarrilaren 1etik aurrera formalizatutako kontratuetan edo kontraturik gabe egindako transakzioetan, egoi tza pasaportean edo nortasun agiri ofizialean edo, beharrezkoa bada, aurkeztutako frogagiritako batean ageri dena izango da.

Hona prozedura: Per tsona fisikoak Europar Batasuneko estatu batek emandako pasaportea edo nortasun agiri ofiziala aurkeztu badu eta beste herri batean egoiliartuta dagoela adierazten badu, egoi tza zehazteko egoiliartuta dagoen herrialdeko agintari tza eskudunak emandako zerga egoi tza ren ziurtagiria erabiliko da. Ziurtagiri hori aurkeztu ezean, egoi tza pasaportea edo nortasun agiri ofiziala eman duen Batasuneko estatuan dagoela pen tsa tuko da.

-Posizioak: 500.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuaren deskripzioa: Agiriaren gakoa.

Jaso tzailearen gakoa F denean soilik adierazi behar da (2. motako erregistroko 76. posizioa).

Abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretuko 63.b) artikuluan ezarritakoaren bat etorritz, per tsona fisiko jaso tzailearen egoi tza zehazteko erabili den agiria zein izan den argitu behar da:

P. Pasaportea.

D. Egoiliartutako herrialdeak edo lurraldeak emandako nortasun agiri ofiziala.

C. Zerga egoi tza ren ziurtagiria.

O. Beste frogagiri bat.

* Zenbateko guztiek positiboak izan behar dute.

* Edukirik gabeko eremu numerikoak zeroak jarrita beteko dira.

* Edukirik gabeko eremu alfanumeriko eta alfabetikoak zuriuneak utziz bete behar dira.

* Eremu numeriko guztiak eskuinean lerrokatu behar dira eta ezkerraldean zeroak jarrita beteko dira.

* Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrokatuko dira eta eskuinaldean zuriuneak utziko dira; letra larriz ida tziko da, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe, eremuaren deskribapenean bestelakorik esaten denean izan ezik.

III. ERANSKINA

@@@I0603436-03